

PLAZABERRI

2026ko martxoa

Zizurkilgo aurrekontu berriak

Aurrekontuak 2026

Inbertsio eta
dirulaguntza
nagusiak

Gizarte zerbitzuak

Komunitatea ehuntzen



Zizurkil bizigarriagoa eraikitzeko 4.503.300 euro

Zizurkilgo Udalak 2026ko aurrekontuak onartu ditu. Aurrekontu hauek udalaren kudeaketaren oinarria dira, eta helburu nagusia da herritarren eguneroko bizitzan eragin zuzena duten zerbitzuak, azpiegiturak eta espazio publikoak mantendu eta hobetzea.

Udal aurrekontuak pertsonak ardatz hartuta diseinatu dira, gizarte zerbitzuak eta herritarren ongizatea lehen lerroan jarriz. Helburua da zizurkildarren bizi-kalitatea hobetzea, kaleak eta espazio publikoak atontzearen, irisgarritasuna indartzearen eta udalerrria bizigarriago bihurtzearen bidez.

Era berean, jasagarritasuna, efizientzia energetikoa eta energia-kontsumo arduratsua sustatzea lehentasunen artean daude. Horretarako, udal instalazio eta azpiegiturretan hobekuntza energetikoak bultzatuko dira, etorkizun jasanga-

rriago baterako trantsizioan aurrera egingez.

Aurrekontuaren hazkundeak aukera emango du herritarren beharrei modu eraginkorragoan erantzuteko, eta aldi berean, Zizurkilentzat estrategikoak diren proiektuetan sakontzen jarraitzeko, ikuspegi soziala, ingurumen-ardura eta kudeaketa eraginkorra uztartuz.

Zergatik igo da aurrekontua?

- **Foru funtsen igoera:** Zerga Itunetik datozen dirulaguntzak handitu dira (180.000€ gehiago).
- **ICIO zerga:** Zubiondon eraikiko diren etxebizitzaren ondorioz. 194.000
- **Next Generation funtsak:** Atxulondo kultur etxearen birgaitze energetikorako. 150.000


4,5 millones para construir un entorno habitable

El ayuntamiento de Zizurkil ha aprobado los presupuestos de 2026, con una dotación de 4.503.300 euros. Las cuentas sitúan a las personas en el centro, reforzando servicios sociales, mantenimiento urbano y mejora de espacios públicos. Se impulsarán actuaciones en accesibilidad y eficiencia energética, así como la rehabilitación de Atxulondo con fondos Next Generation.

El aumento responde al incremento de fondos forales, al ICIO por nuevas viviendas en Zubiondo y a ayudas europeas, permitiendo avanzar en proyectos estratégicos para un Zizurkil más habitable y sostenible.

Diru sarrerak

- **Transferentzia arruntak:** Beste administrazioetatik jasotzen den dirua.
- **Zuzeneko zergak:** Herritarrek eta enpresek zuzenean ordaintzen dituzten zergak.
- **Zeharkako zergak:** Kontsumoari lotutakoak, erosketetan ordaintzen direnak.
- **Tasak eta bestelako sarrerak:** Udal zerbitzuak edo baimenak erabiltzeagatik ordaintzen dena.
- **Ondarezko sarrerak:** Udalaren ondasun eta jabetzek sortzen duten dirua.
- **Kapital transferentziak:** Inbertsioetarako jasotako diru laguntzak.
- **Aktibo finantzarioak:** Maileguz itzulketatik edo finantza-eragiketetatik datarren dirua.



- Transferencias corrientes
- Impuestos directos
- Impuestos indirectos
- Tasas y otros impuestos
- Ingresos patrimoniales
- Transferencias de capital
- Activos financieros

Inbertsioak

Atxulondo birgaitze energetikoa 362.000€

Oinezko zubia 100.000€

Otaño Eskolako instalazio elektrikoa 75.000€

Herribideen mantenua 70.000€

Parkeen berritzea 50.000€

Herribideak hobetzea 50.000€

Kultur etxeen berrikuntzak 10.000€

Argiteria 10.000€

Liburutegiko funtsa 9.000€

• **Atxulondo kultur etxearen birgaitze energetikoa** 362.600 euro: 150.000 euro Next Generation funtsen bidez finantzatuta. Barruko isolamendua berrituko da, aireztapen eta berokuntza sistemak hobetu, eta eraikina energetikoki eraginkorrago bihurtuko da.

• **Oinezkoen zubia:** Aurreko urtean aurreikusita egon arren gauzatu ezin izan zen proiektua da. Aurten, Villabonako Udalarekin elkarlanean, 100.000 euroko aurrekontuarekin egingo da. Zubiaren segurtasuna bermatzeko lanak egingo dira, irristakortasuna hobetzeaz gain.

• **Otaño Eskolako instalazio elektrikoaren berrikuntza integrala:** Kableatu osoa zaharkituta dagoenez, obra hau lehentasunezkoztat jo da segurtasun arrazoiengatik. 75.000 euroko inbertsioa egingo da, Hezkuntza Sailaren dirulaguntzak eskatu direlarik.

• **Herribideen mantenua:** Aurreko urteetan baino partida handiagoa jarri da (70.000 euro), auzo desberdinetan bide publikoak, argiteria, irisgarritasuna eta aparkalekuak hobetzeko.

• **Parkeen berritzea:** Urtero parke bat berritzeko helburuari jarraituz, aurten Mendigain eskolako atariko parkea berrituko da. Prozesua eskola komunitatearekin elkarlanean egingo da, 50.000 euroko aurrekontuarekin.

• **Herribideak hobetzea:** 50.000 euro bideratuko dira landa eremuetako udal bideak hobetzeko. Lehentasuna Lepasoroko bideak izango du, 2025eko ekaineko euriteen ondoren egoera txarrean geratu baitzen.

• **Atxulondo kultur etxearen espazioen berrikuntza:** Gehien erabiltzen diren espazioak berritu, material berria erosi eta ekitaldiak ahalik eta erosoan egiteko baldintzak hobetu nahi dira.

• **Argiteria publikoa:** Kale-argiteria hobetzeko eta eguneratzeko lanak egingo dira.

• **Liburutegia:** Inbertsioetatik hartzen den urteko liburu erosketara 9.000 euro bideratuko dira.

• Rehabilitación energética de Atxulondo

• Puente peatonal

• Instalación eléctrica de la escuela Otaño

• Mantenimiento de vías públicas

• Renovación de parques


• Mejora de las vías públicas

• Renovaciones en las casas de cultura

• Fondo bibliotecario

• Luminaria

Elkarteen dirulaguntzak



Herri bizia, parte-hartzailea eta komunitatearen kohesioa sustatzeko, Udalak ahalegin berezia egiten jarraitzen du herriko elkarte eta eragileekin dituen hitzarmen eta dirulaguntzen bidez.

Ia milioi bat euro bideratzen dira hitzarmen eta lankidetzaren bidez finantzatzeko jardueretara. Horietatik, **80.000 euro zuzenean ematen dira herriko elkarte eta eragileei.**

Elkarte eta eragile hauek herriko kultura, kirola, gizarte ekintza eta ekimen lokalak bizirik mantentzen dituzte, eta Udalaren laguntzarekin euren jarduerak indartu eta zabaltzeko aukera izaten dute.



Beste partida esanguratsu batzuk

- **Gizarte zerbitzuak:** 2026ko aurrekontuetan gizarte zerbitzuak dira ahalegin ekonomiko handia jasotzen duen arloetako bat, 284.400 euroko partidarekin.
- **Hondakinen kudeaketa:** 375.000 euro. Europako legediak ezartzen dituen eskakizunen ondorioz, zerbitzuaren kostua urtez urte handitzen da.
- **Lorezaintza:** 120.000 euro, Gureakekin egindako kontratazioaren bidez.
- **Jaiak:** 76.000 euro, aurreko urteko aurrekontu bera.
- **Eskola Txikien Festa:** Antolaketan Udalak parte hartuko du, eta 10.000 euroko ekarpena egingo da.
- **Danenaren 50. urteurrena:** Partida berria sortu da, 5.000 euroko laguntzarekin, urtean zehar egingo diren ekintza bereziak babesteko.

Otras partidas significativas

- **Servicios sociales:** Uno de los ámbitos que recibe un gran esfuerzo económico con 284.4000 euros.
- **Gestión de residuos:** 375.000 euros. El coste del servicio aumenta año tras año debido a las exigencias establecidas por la normativa europea.
- **Jardinería:** 120.000 euros, a través de la contratación realizada con Gureak.
- **Fiestas patronales:** 76.000 euros, la misma cantidad que el año anterior.
- **Eskola Txikien Festa:** El Ayuntamiento participará en la organización y realizará una aportación de 10.000 euros.
- **50º aniversario de Danena:** Se crea una partida con una ayuda de 5.000 euros adicionales para apoyar las actividades especiales.

Inbertsio nagusiak




Gizarte Zerbitzuak, komunitatea ehuntzen

Badira eguneroko zaratak urrun, isilean, komunitatea ehuntzen duten zerbitzuak. Gizarte Zerbitzuak horietako bat dira. Zizurkilgo Udalak, Aiztondo Mankomunitatearen eskutik, zizurkildarren beharrei erantzuteko programa eta baliabide sorta zabala jartzen du herritarren eskura, bizitzako etapa eta egoera desberdinetan laguntza egokia bermatzeko.

Gizarte Zerbitzuen jarduna pertsonak erdigunean jartzean oinarritzen da: haur, gazte, familia, heldu eta adinekoei zuzendutako ekimenak garatzen dira, bakoitzaren egoera eta beharrei erantzunez. Sarritan ikusezinak badira ere, egunerokoan funtsezko lana egiten dute, babes-sarea eskainiz eta inor atzean gera ez dadin etengabe lanean.

Udalak konpromiso sendoa du herritarren ongizatearekin, eta horren adierazgarri da urtero Gizarte Zerbitzuetara bideratzen den aurrekontua (285.000 euro, 2026an). Inbertsio ekonomikoaz harago, ikuspegi komunitario eta humanista baten aldeko apustua da: beharrak garaiz antzematea, laguntza eta prestakuntza egokiak eskaintzea eta bizitza duina izateko baliabideak jartzea. Helburua da



zizurkildar orok bere etxean eta ingurune hurbilean ahalik eta bizi-kalitate handienarekin bizitzeko aukera izatea.

Aiztondo Mankomunitateak eskaintzen duen laguntza-sare zabalaren barruan kokatzen dira, besteak beste, etkez etxeko laguntza zerbitzua, Mendekotasunaren Prebentzio Programa eta Esku-hartze Psikosozialerako Zerbitzua.

Servicios Sociales, tejiendo comunidad

El Ayuntamiento de Zizurkil mantiene un firme compromiso con el bienestar y la calidad de vida de las y los zizurkildarras. A través de los Servicios Sociales y en colaboración con la Mancomunidad de Aiztondo, impulsa programas para ofrecer apoyo cercano a personas y familias en diferentes momentos y situaciones, reforzando la prevención, el acompañamiento y la cohesión comunitaria.

Ayuda domiciliaria

Tiene como objetivo principal que las personas mayores o en situación de dependencia puedan continuar viviendo en su hogar con seguridad, autonomía y calidad de vida. Ofrece apoyo en actividades básicas de la vida diaria, tareas domésticas y gestiones cotidianas, contribuyendo a mantener las capacidades personales y a prevenir situaciones de deterioro o aislamiento. Además, permite detectar nuevas necesidades de forma temprana y activar otros recursos cuando es necesario.

Prevención de la dependencia

Dirigido a personas mayores de 60 años, promueve un envejecimiento activo, mantiene la autonomía personal y

retrasa posibles situaciones de dependencia. Mediante actividades para trabajar la memoria, el movimiento, la psicomotricidad y la participación grupal, favorece la estimulación cognitiva, el bienestar físico y emocional y hábitos saludables. Además, genera espacios de relación que fortalecen vínculos sociales y ayudan a prevenir la soledad no deseada.

Intervención Psicosocial

Este programa de intervención socioeducativa y psicosocial está dirigido a menores y familias en situación de riesgo de desprotección así como a personas adultas en situación de riesgo de exclusión social. Su objetivo es prevenir situaciones de riesgo y reforzar las capacidades personales y familiares. El equipo profesional ofrece orientación y apoyo a padres, seguimiento socioeducativo a menores y jóvenes, y trabajo en coordinación con centros educativos, Servicios Sociales y el entorno comunitario para detectar necesidades a tiempo y dar respuestas adecuadas. Además, desarrolla intervenciones en contextos cotidianos y comunitarios, promoviendo relaciones saludables, el bienestar emocional y la inclusión social.



Etkez etxeko laguntza zerbitzua

Adinekoren eta mendekotasun egoeran dauden herritarren ongizatea etxean bertan bermatzeko tresna nagusietako bat da Aiztondo Mankomunitateak eskaintzen duen etkez etxeko laguntza zerbitzua. Laguntza eta prebentzio izaera duen programa honek helburu argia du: zizurkildarrek beren etxean ahalik eta denbora gehien bizitzea jarraitzeko aukera izan dezatela, segurtasunez eta bizi-kalitate egokiarekin. Gaur egun, 12 lagunek jasotzen dute zerbitzua Zizurkilan.

Zerbitzuak laguntza pertsonala eskaintzen du eguneroko oinarritzko jardueretan, jarduera instrumentaletan, etxeko lanetan zein zenbait kudeaketatan. Horren bidez, erabiltzaileen autonomia mantentzea edo autonomia-galerari aurre hartzea bilatzen da, segurtasun-sentsazioa indartuz eta bakardade edo bazterketa egoerak saihestuz. Era berean, behar berriak goiz antzemateko eta beste baliabide batzuekin koordinatzeko funtzio garrantzitsua betetzen du etkez etxeko laguntza zerbitzuak. Gainera, familiak eta zaintzaileak ere babesten ditu, zaintza-lanen karga arinduz eta behar denean ordezkari eskainiz.



Esku-hartze psikosozialerako zerbitzua

Aiztondo Mankomunitateak urte luzez eskaintzen duen Esku-hartze Psikosozialerako Zerbitzua 2022an indartu zen, arreta integrala emateko helburuarekin. Orduan txertatu ziren psikologoa eta terapia zerbitzua, baita gizarte bazterketa egoera arriskuan dauden pertsona helduekin esku hartzeko. Orduetik, zerbitzua etengabe garatzen eta egokitzen joan da, eta aurten beste urrats bat eman da; lantaldea indartu da herritarren beharrei erantzuteko.

Egun, lau hezitzaile sozialek eta psikologo batek osatzen dute taldea, eta horri esker esku-hartzeak modu egonkorragoan eta sakonagoan garatu daitezke. Gizarte Zerbitzuekin koordinatuta dihardute lanean, haur, gazte eta familien premia psikosozialak garaiz detektatu eta artatzeko, arreta pertsonalizatua eta kalitatezkoa bermatuz.



Mendekotasunaren prebentzio programa

Aiztondo Mankomunitateak Zizurkilan eskaintzen duen Mendekotasunaren Prebentzio Programa 60 urtetik gorako herritarrei zuzenduta dago, eta 2017az gerotik doan eskaintzen da. Programaren helburu nagusia adinekoren autonomia sustatzea, mendekotasun egoerak atzeratzea eta parte-hartzaileen bizitza soziala indartzea da, bakardade egoerak prebenituz.

Tailerretan memoria lantzeko ariketak, psikomotritzitatea eta mugimendua uztartzen dira, parte-hartzaileak fisikoki eta kognitiboki aktibo mantentzeko. Hala ere, programaren balioa jarduera horietatik harago doa: espazio garrantzitsua da etxetik ateratzeko, beste pertsona batzuekin harremanak sortzeko eta sozializatzeko, ongizate emozionala sustatuz.

Tailerrak astean birritan egiten dira Atxulondon, eta astean behin herrigunean. Izen-ematea abenduan irekitzen bada ere, urtean zehar programan bat egiteko aukera ere zabalik egoten da, baldin eta plaza libre badauke.

Zerbitzuaren helburu nagusia parte-hartzaileen autonomia eta gaitasun pertsonal zein sozialak sustatzea da, harreman osasuntsuak bultzatzea eta bazterketa edo mendekotasun-arriskuan dauden egoerak prebenitzea. Horretarako, esku-hartzeak banaka, familian edo taldean egiten dira, kasu bakoitzaren ezaugarrietara egokituta eta ikuspegi komunitarioa ardatz hartuta.

Besteak beste, adin txikiko eta nerabeen familiei informazioa, aholkularitza eta orientazioa eskaintzen dizkie zerbitzuak; babesgabetasun arineko egoeran dauden haur eta familiei esku-hartze psikosoziala; kalean eta ingurune irekietan egindako jarduerak, hezitzaileen laguntzaz; eta gizarte zein hezkuntza arloko esku-hartze espezifikokoak, kasu bakoitza banan-banan aztertuta.

Esku-hartze Psikosozialerako Zerbitzuak prebentzioa, laguntza eta komunitatearen sendotzea uztartzen ditu, haur, gazte eta familien ongizatea erdigunean jarriz, eta herrian gizarte-kohesioa eta elkarlana indartzen lagunduz.

Haur eta gazteen harremanak indartzeko lanketa, abian

Relaciones saludables entre jóvenes

El diagnóstico realizado por Harremanak Zentroa ha constatado que las relaciones entre jóvenes son cada vez más complejas. Por ello, el Ayuntamiento está trabajando en la construcción de una comunidad que fomente relaciones saludables entre adolescentes.

El estudio pone de manifiesto retos importantes: la capacidad para gestionar la frustración, aumentar la habilidad de la empatía, y, además de eso, fortalecer la percepción de las personas adultas como referentes sólidos.

Por ello, una de las prioridades para los próximos meses será seguir fortaleciendo la comunidad de los jóvenes del municipio trabajando en colaboración.

Izan ere, hamaika gai landu behar direla ikusi da. Besteak beste, frustrazioen kudeaketa egokia egiteko ahalmena, enpatia-gaitasuna garatzeko beharra, helduak erreferente gisa identifikatzeko trebetasuna, mugak eta arauak errespetatzeko ahalmena.

Hortaz, Zizurkilgo gaztetxoen arteko harremanak hobetzeko lehen urratsak eman dira, baina bidea luzea da oraindik. Horregatik, herriko haur-nerabeen komunitatea indartzen eta elkarbizitza osasuntsua sustatzen jarraitzea izango da datozen hilabeteetako lehentasunetako bat, Hezkuntza-Gazteria Mahaia osatzen duten eragile guztiekin elkarlanean.

Haur-nerabeen arteko harreman osasungarriak bultzatzen: diagnostikoaren ostean, lehenengo esku-hartze fasea

Haur, nerabe eta gazteen arteko harremanak gero eta zailagoak eta korapilatsuagoak dira gaur egungo gizartean, eta 2024an herriko ikastetxeek kezka hori azalerratu zuten Hezkuntza-Gazteria Mahaian. Horrexegatik kontratatu da Harremanak elkarte, eta beharrezko diagnostikoa egin ondoren, datu zehatzetatik abiatuta, LH5-6ko gaztetxoekin lehenengo esku-hartze zuzena bideratu berri da.

Haur-nerabeentzat komunitate osasuntsua eraikitzeke, haien bizitzan parte hartzen duten eragile guztiek norabide berean egin behar dute lan. Gauzak horrela, gaztetxoekin landutako gai nagusiak eta esku-hartze honetatik atera diren ondorio nagusiak familiekin eta haur-nerabeekin lanean ari diren profesionalekin partekatu dira.

Egindako lanketaren ondorio nagusia argia izan da: haurren arteko harremanak modu sistematikoan landu eta gaitasun sozialak indartu behar dira, berdinen arteko harremanetan sor daitezkeen egoerak eta gatazkak kudeatzeko tresnak izan daitezzen.

Korrika

Ohi bezala, aurten ere Zizurkilgo udalak Korrikaren lekukoa hartzeko gonbidapena onartu du. Aurten, Korrika Batzordeari eskaini zaio lekukoa, euskararen alde egiten duten ahalegina eta konpromisoa omen du eta goraipatzeko. Korrika martxoaren 23an iritsiko da Zizurkilera, 23:53an.

El Ayuntamiento, como es habitual, este año también participará en la Korrika. El testigo lo llevará la comisión de Korrika, en reconocimiento a su esfuerzo y compromiso con el euskera.

Giza eskubideak Zizurkilen

Udalak Aranzadiren "Oroimena eta giza eskubideak Zizurkilen" ikerlana aurkeztu du, 1936tik zizurkildarrek pairatu dituzten giza eskubideen urraketak eta sufrimenduak ezagutarazteko eta aitortzeko asmoz. Txostenari ekarpenak egin dakizkioke memoria@aranzadi.eus helbidean.

El Ayuntamiento ha presentado el estudio de Aranzadi sobre vulneraciones de derechos humanos sufridas por las y los vecinos desde 1936. Para realizar aportaciones al informe: memoria@aranzadi.eus.



Txostena irakurri



Etxebizitza

Indarrean dagoen Udal Plan Orokorrak ez dio erantzuten herriaren egungo errealitateari. Ugareko Itxaropena eremuko hirigintza-egitasmoa gauzatzeko tramitea aurrera doa, eta, 2026a urte giltzarria izango da baserrien segregazioaren araudiarentzat, lege-esparruak uzten duen neurrian.

El Plan General Municipal no responde a la realidad actual del municipio. El trámite para llevar a cabo el proyecto urbanístico en la zona de Itxaropena de Ugare continúa avanzando, y el cambio de la normativa de segregación de caseríos sigue en curso.

Danena K.E.

Danenak 50. urteurrena ospatzeko ekintza bereziak egingo ditu. Udalak herri ekimenak babestu nahi dituenez, eta herri bizia herritarrek egiten dutenez, aurten, aurrekontuetako ohiko partidaz gain, ekarpen gehigarria eskaini dio elkarteari.

Danena celebrará su 50 aniversario con actividades especiales. Por eso, como el Ayuntamiento quiere apoyar las actividades del pueblo, además del habitual presupuesto, ha ofrecido una aportación adicional.

Laburrian



Izarne Zelaia Arratibel

Kultura eta euskara zinegotzia

“Euskarak eta kulturak eskutik joan behar dute; bata ezin da bestea gabe ulertu”

Fortalecer la cultura en euskera

El 29 de enero el Ayuntamiento de Zizurkil organizó una charla con Gotzon Barandiaran para reflexionar sobre la cultura en euskera. La principal conclusión fue que el gran reto es crear y fidelizar público cultural, ya que muchas personas euskaldunes aún consumen mayoritariamente cultura en castellano. También se destacó el papel clave de

Pasa den urtarrilaren 29an, Gotzon Barandiaran kultur eragilearekin, kulturagintzari buruzko hitzaldia antolatu zuen udalak Atxulondo kultur etxean. Izarne Zelaia Arratibel kultura zinegotziak laburbildu dizkigu hitzaldian izandako hausnarketa nagusiak.

Zer ondorio nagusi atera zen hitzaldian?

Hitzaldia baliagarria izan zen Euskal kulturagintzaren egoerari buruz kokapen orokor bat egiteko. Ondorio nagusia izan zen euskarazko kulturagintzaren erronka nagusia kulturzaleak sortzea dela. Datuek erakusten dute euskaldunok askotan gure kulturari bizkarra ematen diogula, eta oraindik ere kultura erdaraz kontsumitzeko ohitura handia dagoela.

Zer garrantzia du kulturak euskararen biziberritzean?

Kulturak atxikimendu afektiboa sortzen du, eta hori potentzial handia da herritarrek euskarara gerturatzeko. Uste dut garrantzitsua dela euskaltzaleok kontzientzia hartzea. Euskarak eta kulturak eskutik joan behar dute; bata ezin da bestea gabe ulertu.

Euskal kultur transmisioan ematen ari den etenari buruz ere aritu zineten...

Hala da, hezkuntza arautuan ez daukagu transmisio hori bermatuko duen Euskal Herri mailako planik eta egoera kezagarria da. Transmisio hori emateko tokian-tokiko kulturagintza indartzeak duen garrantzia ere ikusi ahal izan genuen beste herri batzuetako esperientziak eza-gutuz. Eta herri bakoitzeko kulturagintza sustatzeko kultur-mahaia indartzeak garrantzia duela ere ondorioztatu genuen, kultura sustatzeko ez baita nahikoa ekintzak antolatzea, bertako sorkuntza ere sustatu beharra dago.

Eta pentsatu duzue zer den aurrerantzean egin nahi duzuen?

Zizurkilgo kultura eta euskara mahaian kultur eragile diren herriko elkarte gehienak elkartzen dira eta hori balioan jarri nahi dugu, baina hobetu beharrekoei ere erreparatu behar diegu: gazteak eta banakako kulturagileak parte hartzea deitzen ditugu, azken batean, kultura mahaia herriko kultur komunitatea osatzen dugunon isla izatea nahiko genuke, elkarrekin erabakitzeke Zizurkilen kulturari dagokionez zeintzuk diren ditugun kezka, behar eta jarri beharreko helburuak. Beraz, kultura eta euskara mahaia parte hartzaileagoa eginez herriko kulturagintza sustatzea da nahi duguna.

la cultura en la revitalización del euskera, por su capacidad para generar vínculos emocionales y acercar a la ciudadanía al idioma. Como próximos pasos, se quiere fortalecer la Mesa de Cultura y Euskera, incorporando a jóvenes, creadores y ciudadanía interesada para definir conjuntamente las necesidades y los objetivos de la comunidad cultural de Zizurkil.



Auzo konpostagune berria, Ugaren

Elbarrenako Ugare auzoan konposta gune berria eraikitzeke udal langileak eremua egokitzen hasi dira, eta gunea udaberrirako prest izatea aurreikusten da

Zizurkilen hondakin organikoak auzoan bertan eta modu jasangarrian kudeatzeko aukera ematen du auzo-konpostak. Orain, Ugaren konpostagune berria jarriko da martxan, eta bertako auzotarrek ere auzo-konposta sisteman parte hartzeko aukera izango dute.

Gune berriak lau konpostagailu izango ditu, eta etorkizunean gehiago jartzeko aukera aurreikusten da. Horrez gain, material lehorraren ontzia ere egongo da bertan; izan ere, konpostatze-prozesuan ezinbestekoa da hondakin hezeak material lehorrarekin nahastea, aireztapena eta egitura egokia bermatzeko eta trinkotzea saihesteko. Hori dela eta, hondakin organikoak botatzen den bakoitzean, material lehor eskukada bat gehitu beharko da. Nolanahi ere, gunean bertan erabilera-arauak argi eta zehatz azalduko dira.

Prozesu natural baten bidez, hondakin organikoak konpost bilakatuko dira, eta sortutako ongarria herriko lorezaintzan eta berdeguneetan erabiliko da.



Ekimenak, gainera, onura ekonomikoa ere badakar atxikitzen diren herritarrentzat. Konpostagunea erabiltzen dutenek hondakin organikoak ohiko bilketa-sistematik kanpo kudeatuko dutenez, hobaria izango dute hondakin-tasan: urtean 225 euro ordaindu beharrean, 168,76 euro ordainduko dute.

Ugareko konpostagunea erabilgarri dagoenean auzoko bizilagunei jakinaraziko zaie. Sistema honen parte izan nahi dutenek izena eman beharko dute, Udal-bulegoetan bertan www.zizurkil.eus webgunearen bitartez.

Txartelen banaketa

Udalak, ingurumenaren zaintza indartzeko eta hondakin kudeaketa hobetzeko helburuarekin, sarraila elektronikokoak instalatu ditu auzo-konpostaguneetan eta ekarpen-guneetan. Gune horiek erabiltzeko beharrezkoak izango diren txartelak iritsi bezain laster banatuko dira erabiltzaileen artean.

Bien bitartean, guneak zabalik egongo dira eta ohiko moduan erabili ahal izango dira.

Nuevo punto de compostaje comunitario en Ugare

El Ayuntamiento de Zizurkil pondrá en marcha un nuevo punto de compostaje comunitario en Ugare, que permitirá a las y los vecinos gestionar sus residuos orgánicos de forma local y sostenible.

Contará con cuatro compostadoras y un contenedor de material seco necesario para el proceso. El compost obtenido se usará en jardines y zonas verdes municipales. Quienes participen obtendrán una bonificación en la tasa de residuos, pagando 168,76 € en lugar de 225 € al año. Las personas interesadas pueden inscribirse en las oficinas municipales o a través de zizurkil.eus.

Eskola txikien festa

“Herri izaera sendotzeko balio dezala eskola txikien festak”

Aratz Alkorta eta Alaitz Ormazabal Urkamendi guraso elkarteko kideak dira eta buru belarri dabilta ekainaren 14an Zizurkil en egingo den Gipuzkoako eskola txikien festa prestatzen.

Noiztik ari zarete festa antolatzen?

Alaitz Ormazabal: Aspalditik genekien, 28 urteren ondoren, 2026an izango genuela jaia antolatzeko ardura eta duela urtebete inguru hasi ginen lehen urratsak egiten. Uda aurretik jarri genituen abian batzordeak eta urrian egin genuen jendaurreko aurkezpena.

Jende askoren laguntza beharko da ezta?

A.O: Bai, erronka handia. Egun gauden gurasoez gain, 50 herritar baino gehiagok eman dute izena festa egunean lan egiteko, bakarren batzuk batzordeetan ere sartu dira eta eskertzekoa da. Baina gehiago behar dugu, noski. Jende asko pasa da urteotan Zizurkilgo eskola txikitik eta horiei, eta oro har, laguntzeko prest daudenei jakinarazi erabili.liberaformas.org/zizurkil atarian eman dezaketela izena.

Aratz Alkorta: Udaberrian egingo dugu ostera kanpaina bat herritarrei izena emateko deia eginez. Zizurkildarrek ilusioz parte hartzea nahiko genuke, jai honek gure arteko loturak eta herri izaera sendotzeko balio dezala.

Izan ere, ez da jai bat soilik...

A.A.: Helburua ez da dirua ateratzea, eskola txikien funtzioa aldarrikatzea baizik. Txikitasunetik eragin daitkeela sinesten dugu: auzo edo herrietan txertatuta,



euskara erdigunean dela, adin aniztasunetik eta haur bakoitzari behar duen begirada eskainiz. Balore horiek zabaldu nahi ditugu.

Egitarauaz aurreratuiguzue zerbait...

A.O: Aurten eskola ezberdinetako haurren elkar eza-gutza sustatu nahi da eta hori igarriko da egitarauan. Aurreratu dezakeguna udaberrian kantutatu bat aurkezteko asmoa dugula, Mendigain eskolako kantua.

Una fiesta para fortalecer la comunidad

Aratz Alkorta y Alaitz Ormazabal son miembros de la AMPA Urkamendi de la escuela Mendigain. Este año organizan la fiesta de las eskola txikiak de Gipuzkoa, que se celebrará en Zizurkil el 14 de junio. “Más de 50 personas se han inscrito para trabajar el día de la fiesta. Pero necesitamos más. Estos años ha pasado mucha gente por la escuela y quien quiera ayudar se puede apuntar en erabili.liberaformas.org/zizurkil. Nos gustaría subrayar que quisiéramos que esta fiesta sirva para fortalecer nuestra condición de pueblo y comunidad”

HARPIDETU ZIZURKILGO WHATSAPP KANALERA



JASO ZIZURKILGO ALBISTEAK ETA AGENDA ZURE MUGIKORREAN



➤ Harpidetu **Zer ote?** digitalera hilabeteko agenda emailean jasotzeko. Bidali **bulegoa@zizurkil.eus** helbidera zure izen-abizenak, emaila eta telefonoa.

➤ Kontsultatu **zizurkil.eus** webgunean agenda eta albiste guztiak.

Lege
gordailua
SS-1118-2011

943 69 10 12
zizurkil.eus

